



EUSKARA IRAKASTEKO METODOLOGIAK EUSKARABENTURAKO GAZTEEN BEGIRADAPEAN

Kike Amonarriz Gorria
2022ko abendua

1. LANAREN ABIAPUNTUA

Urtero bezala, 2022ko uztailaren 15ean, hitzaldi bat eman nien Euskarabenturako partaideei, euskararen egoeraren inguruan “Euskarabentura 2022, euskararen bidegurutzean” izenburupean. Tolo-sako Laskorain Ikastolako areto nagusian elkartu ginen.

Beste hainbat gairen artean, galdekizun pare bat egin nizkien. Horietako batean hauxe galdetu nien: “Zeintzuk dira zuen ikastetxeetan lehentasunez landu beharko liratekeen esparruak, ikasleen euskararen erabilera sustatzeko? (Aukeratu 2).

- a) Gurasoak eta familiak.
- b) Irakasleen jarrera eta hizkuntza portaerak.
- c) Euskara irakasteko erabiltzen den metodologia.
- d) Erabilera planak eskoletan.
- e) Eskoletako zuzendaritzen eta arduradunen inplikazioa.
- f) Eskolorduz kanpoko jarduerak.
- g) Kultur kontsumoa: musika, liburuak, telebista...
- h) Ikasleen motibazioa eta soziolinguistikari buruzko ezagutza.

Ariketa hauek oso modu ximplean planteatu ohi ditut, partaideen ikuspegiaren inguruko tenperatura hartze gisa. Eta hitzaldia ez gehiegi luzatzeko, erantzunak, besoak altxatuz jaso ohi ditut, kontaketa azkar bat eginez. Jasotako kopuruak, beraz, ez dira guztiz zehatzak, baina, kasu honetan, oso garbi ikusten da zeintzuk diren erantzun gehien bildutako 3 lehentasunak. Hona erantzunak:

LEHENTASUNA		Erantzun kopurua
1	Kultur kontsumoa: musika, liburuak, telebista...	80
2	Euskara irakasteko erabiltzen den metodologia	60
3	Ikasleen motibazioa eta soziolinguistikari buruzko ezagutza	47
4	Irakasleen jarrera eta hizkuntza portaerak	26
5	Eskola orduz kanpoko jarduerak	23
6	Gurasoak eta familiak	15
7	Erabilera planak eskoletan	7
8	Eskoletako zuzendaritzen eta arduradunen inplikazioa	6

Emaitzak esanguratsuak iruditu zitzaizkidan, gazteek fokua non jartzen zuten oso nabarmena zelako, eta, erantzun horiek, Euskal Herri osoko oso errealitate soziolinguistiko eta jatorri desberdinetako 132 gazte inguruk emandakoak zirelako (partaideak eta xerpak edo begiraleak).

Jasotako erantzunen artean, ez nintzen harritu lehentasunik nabarmenena kultur kontsumoaren ingurukoa zela ikustean. Inkesta egindako hainbat lekutan ere (irakasleen formazio-saioak, ikaste-txeetan emandako hitzaldiak, gurasoentzako saioak...) azaldua zen lehentasun hau, eta Euskarabenturako gazteen perfila eta gazteen arteko euskarazko kultur kontsumoaren egoera ezagututa, logikoa zela iruditu zitzaidan.

Ez nuen espero, ordea, bigarren aukeratuena (gazteen erdiek aukeratutakoa) “Euskara irakasteko erabiltzen den metodologia” izatea. Atentzioa eman zidan, besteak beste, ariketa hau egina nuen lekuetan ez zelako ordura arte sekula agertu lehen bi lehentasunen artean. Gainera, aukeratutako hirugarren lehentasuna, hau da, “Ikasleen motibazioa eta soziolinguistikari buruzko ezagutza” metodologiaren azpi-atal bezala har daitekeenez, gazteek ildo honi garrantzi berezia ematen diotela ondoriozta zitekeen.

Emaitza hauek txio batean sareratu nituen uztailaren 18an, eta Asier Etxenikek galdera hau egin zidan: “Euskara irakasteko metodologiari dagokionean, zertaz ari diren pistarik? Izan ere harritu nau, pentsatzen baitut Euskarabenturako ia denak etxetik edo hezkuntzatik baina murgiltze eremuan jasoko zutela euskara, edo?”.

Gaiak bazuela interesa iritzita, Euskarabenturako hizkuntza-arduradun Izaro Arrutirekin jarri nintzen harremanetan eta erantzun horren inguruan espedizioko partaideei zer esan nahi zuten zehazteko modua izan ote genezakeen galdetu nion, eta berak, prestutasun osoz, galdekizun labur bat bidal geniezaiekeela komentatu zidan.

Hurrengo astean, galdekizuna osatu, txantilo bat prestatu, eta emailez bidali zitzaizen espedizioko partaide guztiei azken aurreko egunean. Bidalketarekin batera eta berau bete aurretik, azalpenak eman zizkieten aurrez aurre. Esan zitzaizen neronek eskatutako zerbait zela, gogoraraziz nire hitzaldian egindako ariketa eta euskarazko klaseen inguruan jasotako erantzuna. Gazteei esan zieten euskalgintzan eta irakaskuntzatik gertu nabilen pertsona naizenez, haien iritziak kontuan har zitezen moduak bilatuko nituela. Erantzunak berehala jaso ziren eta partaide guztiek bidali zituzten.

2. BIDLITAKO GALDEKIZUNA

Hauek ziren partaideei bidalitako inkestaren galderak, eta kasu batzuetan, erantzuteko aukerak.

“KONTUZ! Euskara irakasleek laguntza behar dute!

- Herria

- 21-22 ikasturtean zein ikasmaitan egon zara?

* DBH4 / Seconde

* Batxi1 / Première

* Gehitu aukera edo gehitu “Beste bat”

- Uste duzu ikastetxean euskara irakasteko erabiltzen den metodologia ez dela egokia euskara sustatzeko?

* Bai

* Ez

* Gehitu aukera edo gehitu “Beste bat”

- Zergatik?

- Zer aldatu beharko litzateke? Zer nolako euskara klaseak nahi dituzu?”

3. EMAITZEN INGURUKO OHARRAK

Euskarabenturako espedizioak osatzen dituzten gazteak, euskararen ezagutzari, eta batez ere, jarrerari dagokionez, batezbestekotik gora kokatzen dira. Espedizioan parte hartzeko lan bat egin behar izan dute haien motibazioa azalduz, eta asko, familia euskaltzaleetako seme-alabak dira (ezagun askoren seme-alabak, edo bilobak, topatu izan ditut bertan).

Haiek emandako erantzunak, beraz, ez dira gazte guztien isla, baina uste dut garrantzi kualitatiboa dutela, euskararekiko atxikimendu handia duten gazteak direlako, eta Euskal Herri osoko lagina osatzen dutelako.

Emaizta hauek, beraz, euskararen irakaskuntzan erabiltzen den metodologiaren inguruko hutsuneak eta hobetu beharreko aspektuak antzemateko, kualitatiboki, pista onak direla uste dut.

Jasotako erantzunak 115 izan dira guztira, hau da, espedizioan parte hartzen ari ziren gazte guztiak (Sherpek edo begiraleek ez zuten parte hartu). Honela banatu dira:

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	IPARRALDEA	NAFARROA	ERANTZUNIK EZ	GUZTIRA
18 (%15,6)	30 (%26,1)	38 (%33,1)	6 (%5,2)	22 (%19,1)	1 (%0,9)	115

Oharra: Haroko partaide bat zegoen, baina Araban ikasten zuenez, Araban sailkatu dugu.

Ikasmailei dagokienez: 59 DBH4koak ziren eta 56 Batxilergo 1. mailakoak.

“Uste duzu ikastetxean euskara irakasteko erabiltzen den metodologia ez dela egokia euskara sustatzeko?” galderari dagokionez, ez genuen nonbait oso modu egokian formulatu, eta gehienek guk eman nahi genuen zentzuan erantzun badute ere, beste batzuk, justu kontrakoan erantzun dute. Hori dela eta, beste bi galderetan esandakoen arabera, birsailkatu egin ditugu erantzunak. Txostenaren amaierako erantzunen zerrendan honela identifikatu ditugu:

(Bai) → Ez; edo (Ez) → Bai

Azken sailkapen honen arabera 17 partaidek (% 14,8) ontzat eman du bere ikastetxean erabiltzen den metodologia eta 98k ez (% 85,2). Ontzat eman dutenak honela banatzen dira lurraldeka (portzentaiak, lurralde horretako partaide guztiekikoak dira):

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	IPARRALDEA	NAFARROA	ERANTZUNIK EZ	GUZTIRA
1 (%5,6)	2 (%6,7)	6 (%15,8)	2 (%33,3)	6 (%27,3)	0 (%0,0)	17 (%14,8)

Laginak ez dira oso handiak, eta sesgatuak izan daitezke, baina, lurraldeen arteko aldeak, egon badaudela ematen du.

Ikasmailei dagokienez, 11 DBH4koak dira eta 6 Batxilergokoak. Erantzunetan konformidatea handiagoa da DBH4n, baina, esan bezala, lagina txikia da ondorioz atera ahal izateko.

4. METODOLOGIA EGOKITZAT JO DUTENAK

Erantzun dutenen artean 17 gustura daude haien ikastetxean euskara irakasteko erabiltzen den metodologiarekin. Hala ere, kasuren batzuetan, hobekuntzarako ideiak ere eskaini dituzte, beste ikasleen ideien artean integratu ditugunak.

- “Gairen bat ongi landu ez arren, edo zerbait faltan bota dudan arren, orokorrean ongi irakasten

delatuste dut". (5)

Aipamenak: 5, 6, 7, 13, 17, 31, 40, 45, 50, 57, 69, 76, 89, 96, 99, 107, 114

Euskara irakasteko erabiltzen den metodologia baikorki baloratzeko nabarmendu diren aspektuen artean honako hauek nabarmendu dira:

- Irakasleen jarrera egokia:

- "Irakasleak jartzen dion gogoak eta liburutik zer eta nola eman ongi aukeratzen du eta ikasleak kontutan hartzen ditu". (17)

- "Nahiz eta irakasleak esfortzu handia jartzen duen gelakideak ez dute euskerarekiko sentimendurik". (76)

- "Irakasleak euskara modu dinamiko batean irakasten du, hau da, ez du guztia gramatikaren arauetara mugatzen". (89)

- Erabiltzen den metodologia komunikatiboa:

- "Euskal literatura tertulia bidez lantzen dugu eta honela euskararen erabilera sustatu. Bestetik aldizkariak irakurri eta bertsoak entzuten ditugu noizean behin". (40)

- "Nahikoa gai jorratzen ditugu euskararen inguruan eta horrek hizkuntza sustatzen laguntzen duela iruditzen zait. Ez nuke ezer aldatuko. Asko gustatzen zaizkit nire klaseak, izan ere, gure ikastetxeak elkartrukeak eginez beste ikastetxeetako ikasleekin beste euskalki batzuk ezagutzen laguntzen gaitu eta hori aberasgarria iruditzen zait ikaslearentzat". (114)

- Azterketetarako baliagarria izatea:

- "Ez nuke aldatuko, nahiz eta bizitzarako ez den guztiz aproposa, azterketetarako hoberena da orain dugun metodologia". (31)

5. HOBETU BEHARREKOAK

Euskara irakasteko erabiltzen den metodologiaren inguruan azaldu diren kritika asko oso orokorrak dira eta Euskal Herriko herrialde eta eremu soziolinguistiko guztietako gazteek aipatu dituzte. Badi-rudi, beraz, egiturazko gabeziatzat har daitezkeela, eta etorkizunera begira, oso aintzat hartu behar-ko liratekeela.

Nagusienak aipatuko ditugu ondoren:

1) KLASE TEORIKOAK ETA EZ PRAKTIKOAK

Aldez edo moldez, gazteen erdiek zuzenean aipatu dute euskarazko klaseak teorikoegiak direla. Praktikaren falta nabarmendu da behin eta berriz: ez delako erabilera lantzen, teorian ikasitakoak ez direlako praktikara eramaten edo ez zaizkielako eguneroko bizitzarako baliagarriak iruditzen, eta abar.

Aipamenak: 3, 9, 10, 11, 16, 17, 19, 29, 30, 33, 35, 38, 49, 52, 55, 58, 62, 65, 68, 70, 80, 81, 82, 87, 90, 97, 100, 101, 103, 105, 108, 109

- Gramatikan eta zuzentasunean zentratuegia ikusten dute euskararen irakaskuntza.

- “Soilik euskera modu gramatikal batetik begiratuta zuzen egiteko irakasten delako, eta ez euskeraz hitz egiteko gogoia pizteko”. (79)

- “Teoria eta gramatika ikastea beharrezkoa da, baina nire ustez hobe izango litzateke euskera modu praktikoago batean irakastea”. (81)

Aipamenak: 29, 32, 39, 40, 59, 61, 73, 74, 77, 79, 91

- Haietako askoren pertzepzioaren arabera, euskarazko klaseen helburua azterketak gainditzea edo tituluak lortzea da.

- “Aurten nire euskara klaseak izan dira B2 prestatzeko eta izan dira nahiko klase teorikoak, gramatika eta taulak memorizatu”. (16)

- “Azterketak gainditzeko bakarrik prestatzen gaituztelako. Tituluak lortzeko”. (25)

Aipamenak: 16, 24, 25, 44, 51, 64, 108, 115

- Metodologia eta erabiltzen diren liburuak zaharkituta daudela eta aspergarriak direla ere hainbatetik aipatu du:

- “Beti gai berdinak dira: nor nori nork, baleak eta bertsoak”. (67)

Aipamenak: 30, 35, 42, 44, 56, 60, 67, 97

- Aditz-taulak askotan aipatu dira. Atentzioa ematen du ikasleen insistentziak. Eguneroko erabileran erabilgarritasunik ez duten aditz-taulak buruz ikasi beharrekiko egonezina maiz agertu da erantzuetan.

- “Arau gehiegi praktikara eraman gabe adibidez aditz taulak (egunerokoan erabiltzen ez diren aditzak) buruz ikasi behar izatea baina gero praktikara ezin eraman ahal izatea”. (83)

Aipamenak: 3, 18, 19, 21, 27, 35, 39, 41, 46, 47, 51, 63, 66, 77, 88, 90, 106, 108, 113, 115

- Aurreko puntuekin lotuta maiz egin duten ñabardura da edukiak buruz ikasi eta memorizatu egi-

ten direla, eta askotan, azterketak pasa orduko ahaztu.

- “Dena memoriaz ikasi, azterketan badakizula erakutsi eta betirako ahaztu”. (102)
- “Irakasleak azaltzen du eta guk ariketak egin, arauak buruz ikasi, azterketa pasa eta aurrera”. (73)

Aipamenak: 36, 48, 64, 73, 90, 92, 113

2) EZ DA ERABILERA SUSTATZEN

Euskara irakasteko erabiltzen den metodologiak, askoren ustez, ez du euskararen erabilera sustatzeko eta indartzeko balio. Hizkuntza ikasteko balio dezake, baina, ez ditu erabilera-ohiturak eta dinamikak eragiten.

- “Erabiltzen den metodologia euskaraz hitz egiteko aukera gutti emaiten digu”. (46)
- “Ez digutelako hizkuntzarekiko interesa sortzen, eta ez gaituzte bultzatzen euskaraz hitz egitera”. (61)

Aipamenak: 4, 26, 46, 47, 61, 65, 68, 74, 77, 80, 91, 94, 102, 104

3) GAUR EGUN ERABILTZEN DEN METODOLOGIAK EUSKARAREKIKO MOTIBAZIO EZKORRAK SORTZEN DITU

Uste zabaldua da, gaur egun erabiltzen den metodologiak, euskararen erabilera sustatzen ez laguntzeaz gain, euskararen inguruko irudi eta motibazio ezkorrak sortzen dituela (hizkuntza aspergarria, interesik eza, irudi txarra...), eta kasu batzuetan, baita aurkako jarrerak ere.

- “Jendeak nazka hartzen diolako euskarari”. (8)
- “Gramatikan eta hizkuntza arloan asko sakontzen dutelako, beraz ikasleen artean ikuspuntu negati-boa sortzen da euskararekiko”. (22)
- “Orduan jendea aspertzen da eta euskara gauza aspergarri batekin lotzen dutelako”. (32)
- “Euskararekiko eta Euskal Herriarekiko konexioa ez da sustatzen, aditzak ikasten ditugu soilik”. (62)
- “Honek, ikasle askok euskara zerbait aspergarri eta “ez guay” moduan ikustea dakar”. (100)
- “Euskara arlo formalera bakartu da eta testuinguru gabe utzi da. Beste edozein hizkuntza bezala irakasten da gramatika, lexiko eta literatura arloak bere kabuz landuz. Horrela, gazte asko aurkitzen gara gaur egungo eduki kulturalerako erreferentzia literario, artistiko eta historikoak ulertu gabe, ezin baitugu lotu klaseetako edukiak errealitatearekin. Ez da posible euskara arlo eskolarrera mugatzea soilik”. (110)

Aipamenak: 8, 22, 32, 33, 39, 41, 43, 58, 60, 62, 66, 71, 80, 82, 88, 100, 110, 111, 112

4) IKASTEN DEN EUSKARA, KALETIK ALDENDUTA DAGO

Gabezia hau, batez ere, eremu erdaldunetako gazteek aipatu dute. Haien ustez, euskara lantzean, kalean erabiltzen den euskarara gehiago gerturatu beharko litzateke. Hizkera informala, euskalkiak edo kaleko euskara bezalako terminoekin adierazi dute behar hori. Garbi antzematen da erantzun horietan hizkera kolokial baten falta sumatzen dutela. Bestetik, euskara non erabili dezaten ere ez

zaiela erakusten salatzen dute.

- “Klaseak ez daude gaur egungo euskerara moldatuta”. (10)
- “Ez digutelako erakusten euskera gure egunerokoan erabiltzen”. (26)

Aipamenak: 5, 6, 10, 22, 26, 35, 38, 72, 77, 75, 83, 98, 113

5) GAUR EGUNGO ERREFERENTZIEN FALTA

Literaturaren lanketaren inguruan azaldu da kritika hau, hots, klaseetan ez dituztela gaur egungo idazleak lantzen, eta idazle zaharretara jo ohi dela.

- “Adibidez, irakasten duten literatura beti dira idazle zaharrak eta liburu klasikoak eta askotan ez daukagu ideiarik gau egungo idazleei buruz”. (16)
- “Irakurtzera behartzen dizkiguten liburuak gure gustuetara moldatzea”. (27)

Aipamenak: 16, 23, 27, 30, 44, 51, 52, 83, 95

6) BESTELAKO ASPEKTUAK

Ingurune erdaldunetako hiru gaztek (3, 72, 92) aipatu dute klaseetan ez direla aintzat hartzen gelan dauden euskararen ezagutza-maila desberdinak edo ezagutza-maila baxu orokorra:

- “Klasearen nibela englobatzen dutelako eta guztiok ez dekulako nibel bera”. (3)
- “Gauza oso konplexuak adibidez, baldintza, ahalera eta horrela ikastera behartzen gaituzte, baina ez dira konturatzen askotan ez garela kapazak ezta hizketa simple bat izan klasekoen artean euskeraz. Uste dut gauza konplexuetan sartu aurretik errefortzatu beharko zela ahozkoa batez ere eta beste gauza sinpleak”. (72)

Azkenik, erabilera behartu egiten dela salatu dute bik (54, 97):

- “Euskara erabilera asko behartzen delako adibidez nire ikastetxean euskararen erabilera notako puntu bat da”. (54)
- “Euskara erabiltzeko presio asko sartzen digute”. (97)

6. PROPOSAMENAK

Egiten dituzten proposamenak, kritikatu dituzten aspektuei irtenbidea eskaintzeko eta euskararen irakaskuntza modu egokiagoan garatzeko aurkeztu dituzte. Horietako batzuk bildu duten aldekotar-sun zabala ikusita, oso aintzat hartu beharko lirateke.

Honako hauek dira nagusienak:

1) KLASE PRAKTIKOAGOAK ETA DINAMIKOAGOAK

Hauxe da, jaso ditugun erantzunetan behin eta berriz errepikatzen den eskaerarik oinarrizkoena: klaseak dinamikoagoak eta praktikoagoak izatea eta, euskararen erabilera sustatzeko baliagarriak.

- “Dinamikoagoak, liburuak alde batera utzi eta ahozko dinamiken bidez hainbat gauza landu”. (24)
- “Euskara gehiago eta gustorago hitz egiteko, klaseak dinamikoagoak izatea nahiko nuke, eta horrez gain egunerokotasunean baliagarriak izango liratekeen gauzak lantzea gustatuko litzaidake. Lehen esan bezala, adibidez euskalkiak”. (38)
- “Hainbeste liburu eta teoria eman beharrean dinamika edo ariketa praktikoagoak egitea. Teoria eta gramatika ikastea beharrezkoa da, baina nire ustez hobe izango litzateke euskera modu praktikoago batean irakastea, adibidez, kultura edo komunikabideak erabiliz (abestiak, berriak, aldizkariak...) eta dinamika ezberdinak eginez”. (81)

Aipamenak: 2, 3, 8, 9, 10, 11, 17, 18, 24, 25, 26, 29, 36, 37, 38, 41, 46, 51, 52, 55, 57, 58, 64, 74, 76, 80, 81, 86, 88, 90, 91, 100, 103, 106

- Klase praktikoagoak eskatu dituztenen artean, hainbatek nabarmendu nahi izan du, teoria ere lantzen jarraitu beharko litzatekeela, baina ikuspegi praktikoagoa erantsiz.

“DBH 3tik aurrera euskara zuzena erakustea (aditz taulak, HABErako prestakuntza...) ongi iruditzen zait, baina txikitatik eta hori baino lehenago kalean erakusten den euskara erakustea erabilgarriagoa iruditzen zait”. (77)

Aipamenak: 13, 14, 59, 69, 79, 81, 94, 104, 105

- Dinamikotasuna indartze aldera, lantzen diren gaien inguruko tertulia, elkarrizketa, debate, jolas edo antzerki gehiago egitea proposatu dute. Debateei garrantzi berezia eman zaie, orokorrean.
- “Gustatuko litzaidake euskeraz gai batzuei buruz eztabaidak edo debateak izatea uste dudalako aukera paregabea dela bakoitzak konfiantza eskuratzeko hizkuntzarekin eta etorkizunean harremanak egiteko erraztasun gehiago izateko”. (108)

Aipamenak: 4, 11, 13, 18, 27, 41, 47, 48, 55, 65, 68, 69, 80, 85, 90, 91, 94, 95, 97, 101, 103, 104, 105, 106, 107, 109, 110

2) AHOZKOTASUNA

Ahozkotasuna gehiago landu beharra azpimarratu da:

- “Metodologia komunikatiboa, gaur egungo sare sozialetan gertatzen ari diren arazoei buruz, adibidez. Hau da, euskararen erabilera sustatzeko ariketak elkarrizketak eginez edo. Beste ideia bat, euskal jokoak, musika modernoa. Hau da, gaur egungoa entzun eta hori lantzea”. (64)
- “Klaseak non ikasle guztiak hitz egiten dugun euskaraz praktikatzeko eta non gramatika era praktiko batean lantzen den”. (53)

Aipamenak: 3, 4, 14, 21, 29, 63, 83, 86, 95, 96

3) ERABILERA SUSTATZEA

Klaseetan, ahozko erabilera gehiago lantzea eskatu da modu nabarmenean, eta bereziki, erabilera sustatzeko dinamikak erabiltzea, ikasitakoa praktikara eramanez...

Proiektuen edo dinamikien bidezko metodologia erabiltzea proposatu dute batzuk. Azken helburua, klaseak berak, entretenigarriagoak eta motibagarriak izatea da. Bestalde, ingurune erdaldunetako batzuk aipatu dute, egunerokoan non erabili ahal izango luketen erakustea eta erabilerarako pistak ematea ere eskertuko luketela (lehen hitza beti euskaraz...).

- "Adibidez jokoak euskaraz eginez, ekintzak (antzerkia adibidez) antolatuz eta euskara praktikatzeko aukera gehiago ukan". (46)

- "Legeak eta mugak hizkuntza txukuntzeko erabili eta ez oinarritzat, horren orde hitz egitea sustatu beharko litzateke, edozerri buruz, ikasle-irakasle erlazioa hobetuz, eta gazteei ohituz edozerri buruz euskeraz hitz egitera". (71)

- "Euskaraz disfrutatzeko dinamikak edo egunak egin. Pasa den urtean aste bukaeran, tokatzen zitzaionari, abesti bat eraman behar zuen euskaraz eta abesti hori zergatik aukeratu zuen azaldu behar zuen (...). Baina beste aukera batzuk egin ahal dira, kahoota edo zuzentzeko modu desberdinak planteatzea". (56)

- "Jolas gehiago egitea euskara gehiago mintzatzeko, ahozkoa gehiago praktikatzea. Azken finean, dinamika ezberdinak egiteak euskara gehiago hitz egitea bultzatu egiten du". (58)

- "Euskararen erabilera erabilgarria erakutsi beharko ligukete. Adibidez, kalera eraman eta lehen hitza euskaraz egiteko frogak egin, ikusteko nola benetan erabil ditzakegu euskera kalean edo euskarari esker lortu diren gauzak". (72)

Aipamenak: 10, 12, 24, 26, 28, 36, 46, 49, 53, 56, 58, 59, 61, 66, 72, 75, 78, 81, 82, 85, 91, 94, 101

4) EUSKAL KULTURAZ ETA EUSKARAREN EGOERAZ INFORMAZIOA

Euskarazko irakasgaiari testuingurua falta zaiola iritzi diote askok. Euskararekin batera, euskal kulturari buruzko (musika, literatura, zinema, lekuak, folklorea...) eta euskararen historiari edo egoerari buruzko informazioa jaso nahiko lukete (euskararen aldeko mugimenduak eta ekintzak, euskararen arriskuak, euskarazko festen zergatia...), horrekin batera hausnarketa sustatuz eta kontzientzia landuz. Betiere, ikuspegi gaurkotu batetik, eta helburua izanik euskara gehiago erabiltzea eta euskaraz bizitzeko aukerak eskaintzea.

- "Txikitatik euskal kultura sustatzen bada, euskararekiko kontzientzia hartzea errazagoa da eta hala motibatuago gaude euskara ikasteko. Literatura, kantagintza, gramatika...". (42)

- "Gaur eguneko kultura sustatzen dituen klaseak, adibidez literatura arloan gaur egungo literaturaz berba egitea eta ez bakarrik orain dela 50 urtekoa, behai liburuak berritzea eta liburutik pixkat ateratzea". (44)

- "Hizkuntza maitatzea, horretarako kultura sustatzea, praktikako ariketen erabilera, ahozko erabilera bultzatzea". (78)

- "Hizkuntza kontzientzia eta hizkuntza berari buruzko hausnarketa (irakasle eta ikasleenak) landu beharko lirateke. Adibidez, hausnartu euskara galduko balitz ze inpaktu izango lukeen ikasle on ar-

tean edota zer galduko genuke indibiduo zein kolektibo bezala”. (79)

- “Euskal Herriko kultura eta haiek sustatzeko egiten diren ekitaldiei buruz informatzea laguntzen du. Euskarazko abesti berrien inguruan informatzea. Herri Urrats, Nafarroa Oinez... Zergatik egiten dira? Ez dakigu”. (92)

Aipamenak: 1, 14, 15, 20, 22, 23, 24, 25, 29, 30, 32, 33, 34, 39, 41, 42, 43, 44, 47, 52, 59, 60, 61, 62, 67, 70, 73, 74, 75, 77, 78, 81, 83, 84, 86, 88, 92, 95, 100, 106, 107, 112, 115

5) ERREGISTROAK ETA EUSKALKIAK

Normalean erabiltzen ez dituzten erregistroak ezagutu nahi dituzte: euskalkiak, hika, kaleko euskara... Eskaera hau egiten duten gehienak eremurik erdaldunenetan bizi dira, eta ikastetxean ikasitako euskara batua dute helduleku bakar.

- “Gustatuko litzaidake gaur egungo euskera ere ikastea. Hika nola erabiltzen den, gure adineko jendeen euskalkiak nolakoak diren, gure adineko jendearen historia euskararekin...”. (10)

- “Kaleko edo euskera informala erakustea, testuinguru moderno batean kokatzea, azken finean euskera esparru batzuetarako ematen da eta nahi badugu euskera kalean egitea kaleko hizkuntza edo lagunen, familien testuinguruan moldatzeko gauzak irakatsi behar digute”. (98)

Aipamenak: 5, 6, 10, 22, 29, 35, 38, 39, 43, 44, 77, 83, 84, 87, 93, 113

6) IRAKASLEEN JARDUNA ETA IKASLEEKIKO HARREMANAK ZAIINTZEA

Gazte batzuk iradokizun zehatzak egin dituzte irakasleen jarduteko moduari eta ikasleekiko harremanei dagokienez. Hauek dira jaso direnak:

- “Klaseak pertsona bakoitzian gehio enfokatuagoak”. (2)

- “Irakasleek gogo gehiago jartzea”. (17)

- “Nire kasuan ikaslea kontuan hartzea nahiko nuke. Adibidez, liburu bat irakurtzerako orduan ikasleei beraien gustuen gandik galdetuz eta abar”. (66)

- “Ez dute gogorekin egiten, ez digute alaitasunarekin eta emozioarekin irakasten, beti txapa edo gramatika da, horrek ez digu guk parte hartzen uzten, bestalde, praktika gehiagorekin gehiago ikasiko genukeela uste dut, horretarako, jokoak eta halakoak daude, edo gutxienez irakasleek gogoarekin egitea, esfortzua hartzen dutela erakustea eta abar...”. (104)

7. EUSKARABENTURAKO PARTAIDEEN ERANTZUNAK

Erantzun bakoitzean aurkituko dituzun elementuak:

- Zenbakia: Txostenean dauden aipamen bakoitzaren amaieran agertzen dena.
- Herria: Erantzun duen pertsonaren herria.
- Lurraldea: A = Araba, B = Bizkaia, G = Gipuzkoa, I = Iparraldea, N = Nafarroa, ? = Zehaztu gabea
- Ikasmaila: DBH4 / Première, Batxilergoa 1 / Seconde
- “Uste duzu ikastetxean euskara irakasteko erabiltzen den metodologia ez dela egokia euskara sustatzeko?” galderari emandako erantzuna:
Bai, Ez, (Bai) Ez, (Ez) Bai
- a) “Zergatik?” galderari emandako erantzuna.
- b) “Zer aldatu beharko litzateke? Zer nolako euskara klaseak nahi dituzu?” galderari emandako erantzuna.

1 Bera – N – Batxi1 - Bai

- a) Gaur egungo euskararen egoeraren inguruan informatzea garrantzitsua dela iruditzen zaidalako eta gaur egun egiten diren euskararen aldeko ekintzen inguruan informatzea garrantzitsua dela iruditzen zaidalako.
- b) Haurtzarotik landu behar den gauza dela iruditzen zait, gure ingurua eta gure egunerokotasunean garrantzi handia duena. Horretarako lehen unetik euskara modu guztietara landu behar dugula uste dut. Bai eduki kultural, sozial etab.

2 Barakaldo - B – Batxi1 - Bai

- a) Klasearen nibela englobatzen dutelako eta guztiok ez dekogulako nibel bera.
- b) Euskera klase dinamikoagoak eta pertsona bakoitzian gehio enfokatuagoak.

3 Altsasu - N – DBH4 - Bai

- a) Teoria gehiegi ikasten dugulako.
- b) klaseak dinamikoagoak izatea, ahozkoak gehiago lantzea, adibidez aditz taulak buruz ez ikastea...

4 Gasteiz – A – Batxi1 - Bai

- a) Ez delako euskararen erabilera naturaltasunez sustatzen.
- b) Ahozkoa gehiago landu baina ez bakarrik aurkezpenekin, baizik eta debate eta elkarriketekin.

5 Erratzu - N – DBH4 – (Bai) —————> Ez

- a) Gairen bat ongi landu ez arren, edo zerbait faltan bota dudan arren, orokorrean ongi irakasten dela uste dut.
- b) Bertze euskalki batzuetako entzumenak egin beharko liratekela uste dut.

6 Iruñea - N – DBH4 - Ez

- a) -.
- b) Jolas gehiago eta probintzia desberdinen euskalkien lanketa sakonagoa eskertuko nuke.

7 Astigarraga – G – Batxi1 - Ez

- a) Daukadan metodologia egokia iruditu zaitelako.
- b) Ezer.

8 Bilbo - B - DBH4 - Bai

- a) Jendeak nazka hartzen diolako euskarari.
- b) Dinamikoagoak.

9 Altsasu - N – DBH4 - Bai

- a) Modu oso teorikan ematen dira klaseak, dinamikoagoak diren jarduerak landu beharko genituen.
- b) Dinamikoagoak.

10 Lapueba – A – Batxi1 - Bai

- a) Klaseak ez daude gaur egungo euskerara moldatuta. Nire ustez garrantzitsua da euskeraren historia jakitea, baina gaur egungo euskeraren erabilera ezagutzea garrantzitsua da ere. Klaseak ez dira dinamikoak.
- b) Gustatuko litzaidake gaur egungo euskera ere ikastea. Hika nola erabiltzen den, gure adineko jendeen euskalkiak nolakoak diren, gure adineko jendearen historia euskararekin... Gehiago hitz egitea erosoago sentitzeko... Klase dinamikoagoak.

11 Getxo – B – DBH4 - Bai

- a) Uste dudalako teoria gehiegi ematen dugula eta praktika gutxi.
- b) Klaseak dinamikoagoak egitea. Tertulia, debate gehiago egin gaien inguruan, liburuetatik pixka bat pasatzea eta ez hainbeste teoria.

12 Gasteiz – A – DBH4 – (Ez) → Bai

- a) Proiektu gutxi egiten direlako.
- b) Proiektu gehiago egiten.

13 Donibane Lohizune – I – DBH4 - Ez

- a) -.
- b) Teoria kendu gabe (taulak) praktika gehiago ezarri (elkarrizketak...).

14 Gasteiz – A – DBH4 - Bai

- a) Euskara praktikoa izan beharko zen ikasi beharko genuke euskara, ulertzen ahal dut Batxin euskara zuzena ikastea baino kontuan izanda Gasteizen ez dela hitz egiten euskaraz uste det askoz garrantzitsuago dela ahozkoak eta horrelako aktibitate dinamiko gehiago egin beharko genukeela.
- b) Aditzak alde batean konpletuki ezin ditugu utzi baino jardun ahal ditugu beste gauza batzuk eta beste modu batzuetan, adibidez, euskal kultura, literatura, folklorea eta abar erakusten.

15 Donostia – G – DBH4 - Bai

- a) Ez direlako euskararen arlo asko ematen eta arlo horien faltak ikasleei euskara ez erabilgarri bezala ikustea eragin dezake.
- b) Nire ustez kultura guztiz lotuta egon behar da euskara irakastearekin. Ezin diozu inori hizkuntza bat erakutsi bere kultura ulertzen ez badu, eta guk, euskara ondo erakustea nahi badegu, euskal kultura ere irakatsi behar dugu.

16 Tafalla -N – DBH4 - Bai

- a) A ber, ez da ez egokia izatea, baina adibidez irakasten duten literatura beti dira idazle zaharrak eta liburu klasikoak eta askotan ez daukagu ideiarik gaur egungo idazleei buruz.
- b) Aurten nire euskara klaseak izan dira B2 prestatzeko eta izan dira nahiko klase teorikoak, gramatika eta taulak memorizatu, nik agian nahiko nituzke klase praktikoak eta ez hain txapak.

17 Lekeitio – B – DBH4 – (Bai) → Ez

- a) Irakasleak jartzen dion gogoak eta liburutik zer eta nola eman ongi aukeratzen du eta ikasleak kontutan hartzen ditu. Klaseak dinamikoak izateko.
- b) Dinamikoagoa eta gogoak.

18 Lezo – G – Batxi1 - Bai

- a) Aditz gehiegi ikasten dugulako, eta uste dut ahoz ondo hitz egitea ere baliagarria dela.
- b) Aditz gutxiago egin eta ahozko aktibitate gehiago egin, eztabaidak adibidez.

19 Altsasu - N – Batxi1 - Bai

- a) Klaseak oso teorikoak direlako eta ez praktikoak, hau da, zentratzen dira gehiegi txapa ematean eta ez gu euskaraz hitz egitean. Klasean egiten dugun bakarra entzun da eta ez praktikatu.
- b) Praktikoagoak, gure artean hitz egiten euskaraz eta ez zentratzea hainbeste aditzetan, aditzetaz aparte gehiago dago.

20 Zumaia – G – DBH4 - Bai

- a) Ez zaidalako nire eskolako metodologia gustatzen. Irakasleak klaseak nola ematen dituen eta nola eta zer azaltzen duen.
- b) Historia gehiago, euskararen historia jakiteko.

21 Gasteiz – A – Batxi1 - Bai

- a) Euskara hizkuntza erraza ez delako eta dena teorikoki azalduz gero, taulen bidez, aulki batean eserita irakasleari entzunez ordu batez... Jendeak interesa galdu egiten du, hizkuntza bat ikastea azken finean zaila delako.
- b) Hitz egitea gehio gure artean edo ahozko gehio egitea, entzumen gehio, aditzen taulak modu dinamikoago batean azaltzea...

22 Gasteiz – A – Batxi1 - Bai

- a) Gramatikan eta hizkuntza arloan asko sakontzen dutelako, beraz ikasleen artean ikuspuntu negati-boa sortzen da euskararekiko.
- b) Txikitatik euskarazko klaseetan Euskal Herriko kulturaren, euskalkietan eta beste arlo ez gramatikoetan gehio sakondu. Gramatika ere ikasi beharra dago, baina agian ondo egongo legoke asteko orduak euskarazko arlo ezberdinen arabera banatzea. Era honetara euskarazko ikuspuntua hobetuko litzateke.

23 Plentzia – B – DBH4 - Bai

- a) Beti euskarazko proiektuak egiterakoan pertsona zaharrei buruz da edo abesti zaharrak jartzen dizkigute eta gaur egun euskara baita dago baina gaiak ez dira modernizatu.
- b) Gaur egungo euskal kultura gehiago kontuan hartzea eta gaiak eguneratzea.

24 Portugalete – B – Batxi1 - Bai

- a) Paperezko azterketetan oinarritzen delako.
- b) Dinamikoagoak, liburuak alde batera utzi eta ahozko dinamiken bidez hainbat gauza landu. Baita, horretaz aparte, ikastolatik kanpo erabili genezakeen gauzak guri eskaini. Jolasen bidez euskal musika ezagutu, meme tailer bat egin...

25 Tolosa – G – Batxi1 - Bai

- a) Azterketak gairatzeko bakarrik prestatzen gaituztelako. Tituluak lortzeko.
- b) Dinamikoagoak, hau da, euskal kulturari garrantzia eman, denon euskara maila kontuan hartu.

26 Iruñea – N- Batxi1 - Bai

- a) Ez digutelako erakusten euskara gure egunerokoan erabiltzen.
- b) Klase praktikoagoak, euskeraren erabilerari garrantzi handiagoa ematen.

27 Laudio – A – Batxi1 - Bai

- a) Erabiltzen den metodologia bakarrik aditzak buruz jakitean eta fitxak egitean datza eta zuzentzerako orduan altuan egiten dugu eta kostatzen zaien pertsonentzat metodo ez efiziente bat delako.
- b) Adibidez, eztabaidak, gustatzen zaigun gairen bat hitz egitea edo irakurtzera behartzen dizkiguten liburuak gure gustuetara moldatzea.

28 Bergara – G – Batxi1 - Bai

- a) Irakaskuntza mundua oso zabala da eta aurrerapauso handiak egin ditu, adibidez, proiektuen bitartez martxan dagoen metodologia eta hau aurrera eramango balitz klaseak dinamikoak izango liriteke.
- b) Goran aipatu dudan bezala proiektuen bidez egindako metodologia jarriko nuke martxan oso garrantzitsua baita.

29 Tolosa – G – Batxi1 - Bai

- a) Dena teoriari eta gramatikari zuzenduta dagoelako.
- b) Ahozkoak eta dinamikoak, liburuak irakurtzeko denbora dutenak, bizitza errealean aplikatu daitezkeen gauzak dituztenak, euskal kultura eta euskalkiak sustatzen dituztenak...

30 Agurain – A – Batxi1 - Bai

- a) Liburuak pixkat zaharkituak geratu dira, liburua hainbeste jarraitu ordez, klase praktikoagoak egin genezake.
- b) Gaur egungo kultura gehio erakustea aintzinakoa baino (aintzinakoei bere garrantzia kendu gabe baino gaurkoari merezi duen garrantzia eman) modu horretan, idazleak, musikariak, artistak... ezagutuko genizuke.

31 Aizarotz – N – Batxi1 - Ez

- a) Nire ustez irakasleak dute bakoitzaren metodologia. Gauza da B2 eta C1 azterketetarako prestatzeko ikasten dugula eta horretarako txapa asko egin behar dira. Ez nuke aldatuko.
- b) Ez nuke aldatuko, nahiz eta bizitzarako ez den guztiz aproposa, azterketetarako hoberena da orain dugun metodologia.

32 Barakaldo – B – Batxi1 – (Ez) → Bai

- a) Euskararen gramatikaren arauak bakarrik erakusten dituztelako, orduan jendea aspertzen da eta euskara gauza aspergarri batekin lotzen dutelako.
- b) Euskararen historia eta garrantzia erakustea, dinamikoagoak izatea.

33 Portugalete – B – DBH4 - Bai

- a) Oso teorikoa delako eta horrek aspertzea edo hizkuntzagandik interesa galtzea eragiten du.
- b) Euskarazko klaseak non euskara ezagutzea eta haren atzetik datorren kultura lantzen direnak eta euskaraz bizitzea bultzatzen dutenak ez uzten euskara ikasgai arrunt bezela.

34 Bilbo – B – DBH4 - Bai

- a) Ia inork ez duelako euskaraz hitz egiten.
- b) Nire ustez txikitik erakutsi behar ziguten ondo zer den euskara horrela guk garrantzia hartu ahal genioke, ere ez nien ikasleei euskaraz egitea behartuko hori gorroto gehiago izatea eragingo luke.

35 Tolosa – G – DBH4 - Bai

- a) Ia-ia dena teoria bitartez erakusten delako. Asko aditzak eta taulak dira. Liburua, fitxak, kuader-noko idatziak... Azkenen klaseak aspergarriak izatera iritsi daitezke.
- b) Erronkak edo jolasak sartu beharko lirateke tarteka. Adibidez egun bat edo aste bat euskalki ezberdinean hitz egiten edo hikaz hitz egiten.

36 Elorrio – B – DBH4 - Bai

- a) Haien helburua guk gauzak buruz ikastea delako eta memoriaz jakin beharrean, erabiltzea, ulertzea eta praktikatzea garrantzitsua baita.
- b) Klaseak dinamikoagoak izan beharko liratekela iruditzen zait. Alde batetik gazteak gogo gehiagorekin joango lirateke ikastera eta egiten dutenarekin gozatuko lukete. Bestalde, gauzak zuzentzerako orduan ahoz gora egitea ideia ona dela iruditzen zait, horrela jende gehiagoren artean ahoz-ahoz komunikatzen eta burua azaltzen ikasteko aukera ona delako.

37 Tolosa – G – Batxi1 – (Ez) → Bai

- a) Klaseak dinamikoagoak izan beharko liratezke.
- b) Dinamikagoak, esate bateko, ikasleak ondo pasatzea klasetan eta horrela gauza klabeekin gertatu dira buruan. Egutero fitxak eta ariketak egiten, egiten ditugu baina ezer buruan geratu gabe. Beharturik gaudelako.

38 Tolosa – G – Batxi1 - Bai

- a) Irakasteko metodologia ez zait egokia iruditzen, ez baitugu euskara benetan lantzen. Hau da, esate baterako, ez ditugu euskalkiak lantzen, eta klaseak ez dira batere dinamikoak.
- b) Euskara gehiago eta gustorago hitz egiteko, klaseak dinamikoagoak izatea nahiko nuke, eta horrez gain egunerokotasunean baliagarriak izango lirateken gauzak lantzea gustatuko litzaidake. Lehen esan bezala, adibidez, euskalkiak.

39 Basauri – B – Batxi1 - Bai

a) Gramatika sustatzen delako ehuneko handi batean, eta honek irudi oso txar eta aspergarria ematen diolako euskarari, euskara ez baita gramatika bakarrik.

b) Aldatu beharko litzatekena izango litzake aditzak eta berridazketak gutxiago ematea, hau da, gramatika eta beste dinamika batzuk sustatzea. Dinamika horietan sartuko lirateke (adibidez): euskalki ezberdinak (beste euskalkietako hitz esanguratsuenak, horrela beste eskualdetakoekin hurbiltasun handiagoz ulertzeko eta bide batez erregistro berri bat ikasteko), euskal kultura (idazleen informazio minimo eta lan txiki bat eman beharrian, beraien garrantzia ematea eta beraien bizitzaz gehiago ikastea, bide batez beraien lanak sakonago aztertuz, lan bikainak baitaude euskaraz eginda), eta abar. Azken finean, orain arte euskara klaseetan eman den bakararra gramatika izan baita, eta euskara ez da inoiz izan eta ez da izango gramatika hutsa; beraz, euskara maite ez dutenei erakargarriago egiteko hobe euskara bera den bezala erakustea, hau da, kultura, euskalki eta pertsona ezberdinez eratutako hizkuntza bat.

40 Lasarte-Oria – G – DBH4 – (Bai) → Ez

a) Euskal literatura tertulia bidez lantzen dugu eta honela euskararen erabilera sustatu. Bestetik aldizkariak irakurri eta bertsoak entzuten ditugu noizean behin.

b) Ez mugatu euskara klaseak gramatikara.

41 Zeanuri – B – DBH4 - Bai

a) Institutuko 4 urte hauetan euskerako saioak oso aspergarriak egiten zitzaizkidan, dena zelako berdina: aditza eta idazlana. Lan mota hauek ez dira motibagarriak euskera ikasterakoan eta ez hori bakarrik, zure euskera ez da batere hobetzen edo aberasten.

b) Nik uste dut klaseak askoz praktikoagoak izan beharko lirateke, debateekin, aurkezpenekin... Askok gustatuko zitzaizkidan klasean euskal kultura sustatzea Euskal Herriko artista, film, liburu, musika, tokiak ezagutzuz. Aditzak egia esan beharrezkoak direzela euskeraz hitz egiteko baina taulak memoriak ikastea eta azterketa egin eta gero dena ahazteak ez du ezertako balio.

42 Tolosa – G – Batxi1 - Bai

a) Euskara irakasteko metodologia zaharkitua dagoelako.

b) Euskararen kontzientziak behin eta berriz hitz egiten dugu eskolan, ez da ordea ezer egiten hau sustatzeko. Euskal Herriko historia beste edozein herritakoa irakasten den moduan irakastea eskertuko genukeelakoan nago. Txikitatik euskal kultura sustatzen bada, euskararekiko kontzientzia hartzea errazagoa da eta hala motibatuago gaude euskara ikasteko. Literatura, kantagintza, gramatika... Denetik lantzea interesgarria litzateke.

43 Bilbo – B – Batxi1 - Bai

a) Ikasleok lotzen dogulako inkontzienteki euskara hizkuntza ikastolako klaseetan, eta horrek mintzatzeko gogoak kentzen dizkigu.

b) Euskalkiei buruzko informazio gehiegi eskaini, ahalik eta adibide gehien jarriz eta ez teoria soilik emanez (adibidez, beste leku bateko euskaldun bat ekarri entzuteko ta ulertzen saiatuteko). Musika baliatuz kultura sustatu eta gramatika irakatsi (adibidez, gaur egungo abestien letrak interpretatu, gramatika aztertu eta hutsuneak bete).

44 Iurreta – B – DBH4 - Bai

a) Azaltzen digutena EGA edo beste azterketa batzuk prestatzeko dira eta ez benetako euskara eta euskara zer den jakiteko. Gainera askotan jarraitu egiten da beti liburuan jartzen duena, adibidez *Eki* liburua eta liburu batzuk zahartuta daude eta oso aspergarriak dira.

b) Gaur eguneko kultura sustatzen dituen klaseak, adibidez literatura arloan gaur egungo literaturaz berba egitea eta ez bakarrik orain dela 50 urtekoa, behai liburuak berritzea eta liburutik pixkat ateratzea. Batzuetan ere gramatika garrantzitsuena da baina pertsona askok ez dakite zer den euskalki bat edo zer den hika eta horrelako gauzak ere garrantzitsuak dira.

45 Andoain – G – Batxi1 - Ez

a) Nire ikastolan egokia da metodologia.

b) Ez dago ezer aldatzeko.

46 Ainhoa – I – DBH4 - Bai

a) Erabiltzen den metodologia euskaraz hitz egiteko aukera gutti emaiten digu eta aditzak anitz lantzen ditugu. Erakasleak taulak gogoz jakitea galdetzen digu, 2-3 ariketak egiten ditugu idatziz eta bukatzeko azterketa.

b) Nahi nituzke klaseak dinamikoagoak izatea adibidez jokoak euskaraz eginez, ekintzak (antzerkia, adibidez) antolatuz eta euskara praktikatzeko aukera gehiago ukan.

47 Portugalete – B – Batxi1 - Bai

a) Aditzak, perpausak... ikasteak ez duelako sustatzen gazteok euskaraz hitz egiteko.

b) Euskarazko kultura, ohiturak ezagutzen modu dinamiko batean. Egia da liburua beharrezkoa dela ikasteko baina ni sartuko nituzke agian debateak edo aurkezpen-lan gehiago mintzamina lantzeko eta konturatzeko euskara erabil dezakegula edozein gauzetaz mintzatzeko.

48 Getxo – B – DBH4 - Bai

a) Ba bakarrik gauzak memorizatzen ditugulako eta gero azterketan bota hitz guztiak eta gero guztia ahazten zaizu.

b) Nire ustez klaseak ez dira izan behar bakarrik memorizatzea, baizik eta eztabaida batzuk eukitzea edo liburuak irakurtzea euskera praktikatzeko.

49 Pasaia – G – Batxi1 - Bai

a) Askotan saioak ez dira dinamikoak eta ez gaituzte motibatzen ikasi nahi izateko.

b) Laz eduki nuen irakasleak, adibidez, irudien bitartez laguntzen gintuen. Esate baterako, baldintza adierazteko beti ba-rekin hasi behar da (balitz, banu...) Eta ke-rekin bukatu (nuke, zenuke, nioke...) Beraz Baque kafearen irudi bat hartzen zuen horrekin gogoratzeko eta errazago izateko. Bestalde, liburuak irakurtzerakoan, ez genuen azterketarik egiten eta ikasturtean behin liburuaren inguruko proiektu libreka egiteko aukera genuen. Normalean beti idazlanak egin behar dira eta modu honetan gure erara espresatzeko aukera genuen.

50 Asteasu – G – DBH4 – (Bai) —————> Ez

a) Nik uste dut metodologia ez dagoela e ain gaizki nire institutoan.

b) Niri nire euskerako klaseak gustatzen zaizkit. Nire eskualdea oso euskalduna denez euskerako klaseak nola diren ez du baldintzatzen euskeraz hitz egitea.

51 Donostia – G – DBH4 – (Ez) —————> Bai

- a) Klasean helburu gixa tituluak ateratzeko oinarri bat ematen digute eta bideratuta egon beharko litzateke euskara ez sustatzera, gainera, ematen diren bai kultura eta literatura zaharkituak gelditu direla iruditzen zait, azken finean gure irakasleak beraiek ikasi zuten literatura en oso parekoa baita eta ez ditugulako irakurtzen, horren orde z haien inguruan dauden kritikak Irakurtzen ditugu
- b) Niri euskara klase praktiko eta aktualagoak gustatuko litzaizkidake, aditzak hitz egiten ikasi beharko liratezke eta ez taula bat errepikatuz, kalean ez zaizulako paperekoa aterako.

52 Iruñea – N- Batxi1 - Bai

- a) Klaseak ez direlako batere dinamikoak eta ez delako gure parte hartzea sustatzen.
- b) Klaseak askoz dinamikoagoak izan beharko liratezke eta horretarako hainbat gauza aldatzea komeni da. Esate baterako, gaur egungo gaiak lantzea. Egia da, ondo dagoela literatura zaharra lantzea baina ez da batere entretenigarria guretzako. Izan ere, gure egunerokotasunarekin ez dator bat eta horrek gure interesa gutxiesten du. Hori hobetzeko, inguruan eta guri interesatzen zaizkigun gaiak landuko nituzke. Gainera gure ahazkotasun, irakurmen eta entzumen maila igoko liratezke, interes gehio jarriko genuen eta.

53 Haro – A – Batxi1 - Bai

- a) Irakasleak ariketa gehiegi bidaltzen duelako etxerakolan bezala eta inork ez ditu egiten hurrengo egunean klasean irakasleak zuzenduko dituelako. Orduan errezagoa egiten zaigu ikasleoi ez egitea ariketak eta kopiatzea erantzunak. Horregatik ez dugu ikasten eta gramatika ez da egoki lantzen.
- b) Klaseak non ikasle guztiak hitz egiten dugun euskaraz praktikatzeko eta non gramatika era praktikoko batean lantzen den.

54 Plentzia – B – DBH4 - Bai

- a) Euskara erabilera asko behartzen delako adibidez nire ikastetxean euskararen erabilera notako puntu bat da.
- b) Euskara dinamikoki irakastea eta ez denean erabiltzen beste modu batean zuzentzea ez esaten euskara notaren puntu bat da hitz egin behar duzu.

55 Arrigorriaga – B – DBH4 - Bai

- a) Gehienbat teoria da.
- b) Praktika gehiago, adibidez: debateak, jolasak.

56 Laudio – A- Batxi1 - Bai

- a) Beti jarraitzen dugu errutina berdina, hau da, liburuko edukiak eta behartuta sentitzen garela euskara ikastera eta ez dugu disfrutatzen.
- b) Klasea planteatzeko modua eta aldi berean euskaraz disfrutatzekeo dinamika edo egunak egin. Adibidez: aste amaieran klase lasaiagoak egin (adibidez: ahazkoa). Nik pasa den urtean aste bukean, tokatzen zitzaionari, abesti bat eraman behar zuen euskaraz eta abesti hori zergatik aukeratu zuen azaldu behar zuen. Horretarako etxean musika entzun behar genuen eta ez genuen lotzen beti institutuarekin. Baina beste aukera batzuk egin ahal dira, kahoota edo zuzentzeko modu desberdinak planteatzea.

57 Zumeltzu – A – DBH4 - Ez

- a) Ikastolatik kanpo zein ikastolan erabiltzen ez dugulako.
- b) Euskara erabilera nota finalean baliorik ez izatea. Dinamikoa izatea, hots, teoriak gain beste jar-

duera mota bat egin.

58 Amorebieta – B – DBH4 - Bai

- a) Nire ustez, ikastola askotan euskara irakasteko modua ez da batere ez dinamikoa. Gaur egun, oso teorikoki irakasten da euskara eta horrek egiten du ikasleak euskara ikasi nahi ez izatea.
- b) Dinamikoagoak nahiko nituzke, jolas gehiago egitea euskara gehiago mintzatzeko, ahozkoa gehiago praktikatzeko. Nire ustez euskaraz hitz egiten, teorikoki ikasten baino askoz gehiago ikasten delako. Azken finean, dinamika ezberdinak egiteak euskara gehiago hitz egitea bultzatu egiten du gaur egungo gazteei.

59 Beasain – G – Batxi1 - Bai

- a) Hizkuntzaren legeak besterik ez dira ikasten, eta noski behar dela baina, euskara hizkuntza bezala zer den, ze inpaktu duen inguruan, zer esan nahi duen duen euskaldunontzat... Hizkuntzaren erabilera ez ezik historia, literatura eta abar ematea ondo egongo zen.
- b) Aurretik esan bezala hizkuntzaren inguruan esplikatzea ez bakarrik erabilera. Proiektuak ere egin daitezke euskarari buruz ikasteko. Ikertu, arakatu...

60 Sopela – B – DBH4 - Bai

- a) Irakasleek nahi dutelako liburuko gaitegi guztia eman ikusi gabe ea ikasleek ulertzen duten irakasleak azaldutakoa edo ez. Baita ere beti eskatzen dizkigute liburu berdinak irakurtzea eta horrek ikasleek euskarako klaseak gorrotatzea lortzen du.
- b) Euskarako klaseak emateko metodoa. Euskal kultura... Ikasleei erakutsi musika, dantza... jartzen klasean.

61 Azpeitia – G – Batxi1- Bai

- a) Gramatika erakusten digutelako, eta ez digutelako hizkuntzarekiko interesa sortzen, eta ez gaituzte bultzatzen euskaraz hitz egitera.
- b) Euskerarekiko interesa sortu beharko litzateke, euskeraren buruz hitz eginez, duen arriskua erakutsiz edo zuregan duen eraginaren buruz hausnartuz. Eta dinamikak egin euskeraz hitz egiteko eta euskararen erabilera bultzatzeko.

62 Astigarraga – G – Batxi1 – (Ez) —————> Bai

- a) Klaseak ez dira dinamikoak, euskarari buruzko edukiak oso urriak dira (literatura eta historia alde-tik adibidez). Euskerarekiko eta Euskal Herriarekiko konexioa ez da sustatzen, aditzak ikasten ditugu soilik.
- b) Edukiak historiarekiko eta literaturarekiko sakonagoak eta dinamikoagoak izatea.

63 Arbizu – N – DBH4 - Bai

- a) Dena liburutik irakurtzen dugulako eta ez dugulako lantzen irakurritakoa.
- b) Aditzen erabilera hori batez ere. Ondo egongo zen ahozkoa gehiago lantzea.

64 Getxo – B – DBH4 – (Ez) —————> Bai

- a) Edukiak memorizatzen direlako askotan zeri buruz ari garen jakin gabe ere.
- b) Metodologia komunikatiboa, gaur egungo sare sozialetan gertatzen ari diren arazoei buruz, adibidez. Hau da, euskararen erabilera sustatzeko ariketak elkarrizketak eginez edo. Beste ideia bat, euskal jokoak, musika modernoa. Hau da, gaur egungoa entzun eta hori lantzea. Ez izatea dena ikasi azterketarako eta gero ahaztu.

65 Gasteiz – A – Batxi1 - Bai

- a) Azkenean, erabiltzen den metodologia horrekin ez da lortzen ikasleek euskaraz egitea, eta badago jendea euskarako ikasgaia ez zaiola gustatzen erabiltzen den metodologiagatik.
- b) Dinamikoagoak izatea gustatuko litzaidake, debateak-eta egin, gazteek euskara gehiago erabiltzeko eta horrela euskaraz mintzatu egingo dira eta aldi berean mintzamina praktikatu ahalko lukete haien akatsak zuzenduz.

66 Lasarte-Oria - G – Batxi1 - Bai

- a) Euskera benetan gehiago kostatzen zaien ikasleei benetan oso astun egin ahal zaielako horrelako klase bat. Adibidez klasero aditz fitxak egiten baditugu, eta gero ez badira hauek hitz egiterako orduan erabiltzen ikasleei benetan aspergarria egingo zaie, eta amorratu egin daitezke ere. Horrela jendiak euskeraz hitz egiteko gogoak galduz eta euskeraz hitz egiteari utziz.
- b) Nire kasuan ikaslea kontuan hartzea nahiko nuke. Adibidez, liburu bat irakurtzerako orduan ikasleei beraien gustuengandik galdetuz eta abar. Bestalde, mintzamina gehiago praktikatzea ere beharrezkoa iruditzen zait, eta baita ere gramatika egiterakoan fitxak aspergarriak egin daitezkeela kontuan hartzea, eta baita ere aditzak egiteko beste hainbat modu, joku edo dinamika egin daitezke ere.

67 Donibane-Lohizune – I – DBH4 - Bai

- a) Egiten ditu bost urte elebidunean naizela eta beti gai berdinak dira : nor-nori-nork, baleak eta bertsoak.
- b) Gai diferentek: adibidez, filma bat edo beste zerbaite.

68 Altsasu - N – DBH4 - Bai

- a) Enean ez ditugu klase dinamikoak egiten eta jende asko euskara gorroto du euskara klasearengatik bakarrik. Nire ustez klaseak dinamika moduan hobeagoak izango ziren euskara sustatzeko.
- b) Joko gehiago eta euskararekin lotura duten gaiekin eztabaida gehiago sortzerakoan euskara gehiago erabili eta ikasiko genukeelako.

69 Mungia – B – Batxi1 - Ez

- a) Ez nuke esango onena dela, baina nahiko ondo dago nire kasuan.
- b) Batez ere proiektuak, tertuliak, ahozkoak, idazlanak, lan libreak... Sustatu eta azterketak albo batera utzi, nire ustez euskarako azterketak soberan daude. Hala ere, garrantzitsua da teoriak tokia izatea, baina txikia.

70 Zumarraga – G – DBH4 - Bai

- a) Klaseak ez dira dinamikoak, eta kultura aldetik musika literatura ez da hitz egiten, eskertuko litekeena.
- b) Euskararen historiaz hitz egin beharko litzake ere baita literaturaz ere.

71 Gasteiz – A – Batxi1 - Bai

- a) Euskera bera, gaur egun hainbeste desberdintasun eta bariazio dituen horretan, mugatua ikusten da indarrean dagoen metodologiaren ondorioz. Hizkuntza bat ezin duzu arau multzo batera mugatu, honen erabilera asko zailduko baita eta gazteen artean gorroto sentimendu bat sorrarazten duelako.
- b) Legeak eta mugak hizkuntza txukuntzeko erabili eta ez oinarritzat, horren orde hitz egitea sustatu

beharko litzateke, edozerri buruz, ikasle-irakasle erlazioa hobetuz, eta gazteei ohituz edozerri buruz euskeraz hitz egitera.

72 Portugalete – B – DBH4 - Bai

- a) Gauza oso konplexuak adibidez, baldintza, ahalera eta horrela ikastera behartzen gaituzte, baina ez dira konturatzen askotan ez garela kapazak ezta hizketa simple bat izateko klasekoen artean euskeraz. Uste dut gauza konplexuetan sartu aurretik errefortzatu beharko zela ahozkoa batez ere eta beste gauza sinpleak. Batzuetan klaseak oso zentratuta daude notan eta EGAn eta buruz ikasten eta botatzen, baina ez benetan euskaraz mintzatzen edo euskara gozatzen.
- b) Nire ustez, euskera hitz egiteko jarduera gehiago egin behar lirateke. Ez bakarrik paperean egiten diren gauzak, hala nola gramatika, lexikoa... Adibidez euskararen erabilera erabilgarria erakutsi beharko ligukete. Adibidez, kalera eraman eta lehen hitza euskaraz egiteko frogak egin, ikusteko nola benetan erabil dezakegun euskera kalean edo euskarari esker lortu diren gauzak, apur bat liburutik (gramatika, lexikoa, idazmena...) atera beharko lirateke eta beste erabilera egunerokoagoak erakutsi.

73 Zarautz – G – Batxi1 - Bai

- a) Gramatika eta literatura bakarrik ematen delako modu astunean. Irakasleak azaltzen du eta guk ariketak egin, arauak buruz ikasi, azterketa pasa eta aurrera. Horrela euskara gutxiago “gustatzea” egiten die. Baina hala ere eskolaz gain lagun eta familiak eragin handiagoa dauka, hauekin egiten duzunaren arabera izango baitira zure ohiturak.
- b) Gramatika eta literaturaz gain, euskararen inguruko gauza gehiago azaltzea gustatuko litzaidake eta gazteoi gustatzen zaizkigun gauzak euskaraz ere daudela erakustea: musika, sare sozialetan...

74 Aretxabaleta – G – DBH4 - Bai

- a) Gramatikara bideratutako metodologiak ez du funtzionatzen, gazteok euskara zama bat bezala hartzen dugulako. Horrela ez dugu lortzen nahi duguna, gazteetan euskaraz hitz egitea.
- b) Euskal Herrian daukagun kultura aprobetxatuz (musika, liburuak, notiziak...) klase komunikatibo eta dinamikoagoak egin ditzakegu.

75 Portugalete – B – DBH4 – (Ez) → Bai

- a) Ez delako euskara eskolatik ateratzen, ez delako erakusten bizitza bat egin daitekeela euskaraz.
- b) Herri bakoitzean euskararen egoera desberdin bat dagoela eta garrantzitsua dela desberdintzea uste dut. Portugaleten euskara eskolako hizkuntza bezala hartzen da eta ez bizitzan zehar erosotasunean erabili daitekeen hizkuntza bat bezala. Orduan nire ustez euskaraz mintza praktika gehiago egitea izango litzake egokiena, bakoitzak bere burua euskaraz hitz egiten entzuteko eta erosotasunean hitz egiteko. Honekin batera, euskal kulturaz kontzientzia bat hartzea ere oso garrantzitsua iruditzen zait, euskaraz bizi ahal dela ikusteko eta euskal identitatea ezagutzeko.

76 Altsasu - N – DBH4 - Ez

- a) Nahiz eta irakasleak esfortzu handia jartzen duen gelakideak ez dute euskerarekiko sentimendurik.
- b) Klase dinamikagoak eta euskara maitatzea egiten dutenak.

77 Tolosa – G – DBH4 - Bai

- a) Jende askok aditz taulak, euskara zuzenaren gramatika... bakarrik ikasten duelako eta horrek euskaraz hitz egiteko motibazioa kentzen diolako hizkuntza “zaila” dela erakutsiz.

b) DBH 3tik aurrera euskara zuzena erakustea (aditz taulak, HABEko prestakuntza...) ongi iruditzen zait, baina txikitatik eta hori baino lehenago, kalean erakusten den euskara erakustea erabilgarriagoa iruditzen zait. Gainera, zuzentasunerako erabiltzen zen denbora harekin erakusten ez zaizkigun gauza interesgarriak erakutsi ahal dizkigute (historia, euskalkiak, ahozko praktika)...

78 Amurrio – A – Batxi1 - (Ez) —————> Bai

- a) Teorian zentratuta dagoelako.
- b) Hizkuntza maitatzea, horretarako kultura sustatzea, praktikako ariketen erabilera, ahozko erabilera bultzatzea.

79 Gasteiz – A – Batxi1 - (Ez) —————> Bai

- a) Soilik euskera modu gramatikal batetik begiratuta zuzen egiteko irakasten delako, eta ez euskeraz hitz egiteko gogoia pizteko.
- b) Nire ustez, ikastetxeetan ematen diren hizkuntza klaseetan, gramatika eta zuzentasuna lantzean gain (ezinbestekoak direnak) hizkuntza kontzientzia eta hizkuntza berari buruzko hausnarketak (irakasle eta ikasleenak) landu beharko lirateke. Adibidez, hausnartu euskara galduko balitz ze inpak- tu izango lukeen ikasleonean artean edota zer galduko genuke indibiduo zein kolektibo bezala.

80 Donostia – G – Batxi1 - Bai

- a) Klasean erabiltzen den metodologia teknikoegia delako. Teoria gehiegi irakasten da, eta gehieng- tan liburua edo txostenak erabiliz. Eta nire ustez, horrek ez du euskararen erabilera bultzatzen.
- b) Nik metodologia aldatuko nuke klaseak dinamikoagoak egiten. Klaseetan debate gehiago eginez adibidez askoz gehiago ikasiko genuke entretenigarriagoa izango litzatekeelako. Baina, liburuarekin ikasleok gehiago aspertzen gara eta horrek batzutan hizkuntzarekiko gorrotoa sortzen du ikasle batzutan.

81 Mungia – B – Batxi1 - Bai

- a) Orokorrean metodologia nahiko formala eta zurruna izaten da eta nire ustez dinamikoagoa izan beharko litzateke.
- b) Hainbeste liburu eta teoria eman beharrean dinamika edo ariketa praktikoagoak egitea. Teoria eta gramatika ikastea beharrezkoa da, baina nire ustez hobe izango litzateke euskera modu praktikoago batean irakastea, adibidez, kultura edo komunikabideak erabiliz (abestiak, berriak, aldizkariak...) eta dinamika ezberdinak eginez.

82 Tolosa – G – Batxi1 - Bai

- a) Dena teoria delako, eta ez didalako euskarari buruzko interesik piztu.
- b) Proiektu gehiago egitea, zalantza eta akats ohikoenak behin eta berriz klase aurrean azaltzea, klaseak interesgarriagoak egiten saiatzea...

83 Iruñea – N- Batxi1 - (Ez) —————> Bai

- a) Arau gehiegi praktikara eraman gabe adibidez aditz taulak (egunerokoan erabiltzen ez diren aditzak) buruz ikasi behar izatea baina gero praktikara ezin eraman ahal izatea. Literaturan buruz biografiak ikasteak ez duelako ezer aportatzen eta euskal kultura ez delako lantzen.
- b) Euskal kultura gehiago lantzea, euskara era informal batean erabiltzen erakustea, ahozkotasuna eta idatzizkoa gehiago lantzea, literatura lantzeko modua aldatzea.

84 Pasaia – G – Batxi1 - Bai

- a) Ez delako dena erakusten.
- b) Gustatuko litzaidake euskalkiak ezagutzea eta euskara bultzatzen dituzten aktibitateak eta talde-taz hitz egitea.

85 Irun – G – DBH4 - Bai

- a) Euskeraz hitz egiteko metodoak gutxi daudela iruditzen zait adibidez debateak, reflexioak.
- b) Euskara klaseak, euskeraz hitz egiteko egoerak anitzagoak izan behar dira.

86 Burlata – N – DBH4 - Bai

- a) Ez delako euskeraren gaur egungo kontzientziarik hartzen, ez dute erakusten Euskaraldia, Herri Urrats... Jendeak ez du euskera bizi era batean ikusten, asignatura bat baizik. Egia da justu aurten gehio saiatu direla baina orain arte ez.
- b) Dinamikoak edo ahozkoak jende guztiak parte hartzeko ez bakarrik eskua altxatzen duena hitz egiteak. Baina teoria ikasi arren, kontzientzia hartzea.

87 Donostia – G – Batxi1 - Bai

- a) Teoria asko, bestelako jakintza gutxi. (Euskalkiak, hizkuntzarekiko arazoak eta abar).
- b) Batzuetan eredu aldatzeko, Euskal Herriko jende desberdinaren egoerak ezagutzeko, euskalki desberdinak entzun eta proiektu berrien berri izateko. Jende desberdinak gonbidatuz eta euskerarekiko duten egoerak azalduz.

88 Mungia – B – Batxi1 - Bai

- a) Gehienetan ez delako euskararekiko motibazioa sustatzen.
- b) Euskararen aldeko informazioa ematea edo era praktikoago batean. Ez aditz batzuk eta literatura orriak ikasiz.

89 Arbizu – N – DBH4 – (Bai) → Ez

- a) Irakasleak euskara modu dinamiko batean irakasten du, hau da, ez du guztia gramatikaren arauetara mugatzen.
- b) Gauza gutxi ikusten dut aldatzeko, izan ere, nire euskarako klaseak egokiak iruditzen zaizkit bai irakaslearen motibazioagatik, bai klase emateko moduagatik.

90 Gasteiz – A – DBH4 - Bai

- a) Niretzako hizkuntza bat ikasteko praktika da garrantzitsuena eta klasean praktika ez da asko egin.
- b) Nik uste dut praktika gehiago egin behar dugula euskara sustatzeko, egia da gramatika oso garrantzitsua dela hizkuntza bat ikasterakoan, baina ez da beharrezkoa adibidez aditzak ikastea buruz. Beste modu batez ikasi daitezke. Niri gustatuko litzaidake sartzea klasean eta hastea debate bat, antzerkiak...

91 Korres – A – DBH4 - (Ez) → Bai

- a) Gaur egun ikastetxeetan erabiltzen den metodologiak ez duelako hizkuntzaren erabilera sustatzen eta gramatika eta lexikoa erakustera mugatzen delako.
- b) Klaseetan hitz egiteko ekintza gehiago egitea (tertuliak eta debateak, adibidez) ikasleok ikasten

duguna praktikan jartzeko eta klaseak dinamikoagoak egitea (ikasleok klaseetan parte hartzeko aukera gehiago egotea).

92 Uharte – N – DBH4 - Bai

- a) Taulak memoriz ikastea ez da euskera jakitea. Askotan ez daukagu oinarri bat eta horrek egiten du gramatikako gai zailago batean gaudenean denak suspenditzea.
- b) Euskal Herriko kultura eta haiek sustatzeko egiten diren ekitaldiei buruz informatzea laguntzen du. Euskarazko abesti berrien inguruan informatzea. Herri urrats, Nafarroa Oinez... Zergatik egiten dira? Ez dakigu.

93 Gasteiz – A – DBH4 - Bai

- a) Eskolan ez dizute euskalkiei buruzko informaziorik nahikorik ematen, gure eskolan behintzat DBH 3 arte diktaketak besterik ez genituen egiten eta gainera nota koadernoaren dekorazioaren arabera zen, gero ta kolore gehiago izan orduan eta nota altuagoa. Ez genuen ezer ikasten. Ta ba, aurtan, irakasle berri batekin ba gramatika gehiago egin dugu, ahozko aurkezpenak. Ahala ere, argi dago eduki aldetik gaztelaniari edo ingelesari euskarari baino garrantzi handiagoa ematen zaiela.
- b) Hizkuntzan gehiago zentratzen direnak, literatura, antzinako idazleak ezagutu...

94 Portugalete – B – Batxi1 - Bai

- a) Ez da erabiltzen den metodologia baizik eta euskara sustatzeko egin dezaketen beste hainbat jarduera gehitzea metodologian.
- b) Gramatika beharrezkoa dela argi dago, orduan baliteke debate gehiago eginez, euskara gehiago erabiliko genukeela. Ahozko gehiago landuz, adibidez gramatika ez soilik idatziz ikasiz ahoz ere.

95 Tolosa – G – DBH4 - Bai

- a) Euskerako klaseetan nahiz eta aditzak, gramatika eta abar jorratu, orokorrean ez dugu ahozko ariketarik edo proiekturik egiten. Bestetik, proiektu, azterketa, aurkezpen edo ariketa gehienetan euskara idazle, musikari edo orokorrean pertsona zaharrek lotzen da, esate baterako Mikel Laboarekin. Horren adibide argia da euskararen egunekoa, euskararen egunean kahootean ibiltzen gara eta galdera gehienak Euskal Herriko kultura zaharrari buruzkoak dira, eta abestiak entzuten ditugunean ere gauza bera gertatzen da.
- b) Hau hobetzeko, euskerako klaseetan ahozko ariketa gehiago egingo nituzke, debateak esaterako, gaur egungo gaien inguruan. Bestetik, lehen esan bezala euskara Euskal Herriko kultura zaharrek lotzen da, beraz, hemendik aurrera, ariketa, proiektu, aurkezpen... bakoitzean Euskal Herriko musikari, idazle edo famatuak aipatzean, gaur egungoak aipatuko nituzke, euskara ez dadin hizkuntza zahar moduan gelditu.

96 Tolosa – G – Batxi1 – (Bai) → Ez

- a) Ez dut uste guztiz desegokia izan denik metodologia, baina hein batean bai.
- b) Nire ustez dena ez litzateke idatzizko azterketa batean ebaluatu behar. Iruditzen zait onuragarria izango litzatekeela bat-bateko ahozko trebetasunak gehiago lantzea.

97 Irun – G - DBH4 - Bai

- a) Euskara irakasteko modua oso astuna edo aspergarria iruditzen zaidalako, teoria gehiegi edo euskara erabiltzeko presio asko sartzen digute.
- b) Taldeka euskara sustatzeko proiektu gehiago, guztion artean euskara gehiago erabiltzea, adibidez

debateak edota gaiaren inguruan sortuz eta ondoren irakasleak beste modu batean azaltzea edo erraz esplikatzea...

98 Iruñea – N- Batxi1 - (Ez) —→ Bai

- a) Zuzeneko euskara irakasten digutelako ez kalean edo esfera informaletan erabiltzekoa.
- b) Kaleko edo euskera informala erakustea, testuinguru moderno batean kokatzea, azken finean euskera esparru batzuetarako ematen da, eta nahi badugu euskera kalean egitea kaleko hizkuntza edo lagunen, familien testuinguruan moldatzeko gauzak irakatsi behar digute.

99 Olazti - N - Batxi1- (Bai) —→ Ez

- a) Beti eskaintzen diogulako tarte bat solasteari eta eztabaidatzeari. Aditzak ere ez ditugu taulekin ikasten, beste truko batzuek egiten ditugu eta askoz eramangarriagoak egiten dira klaseak.
- b) Klase aktiboak, ezberdinak (eztabaidekin, solasaldiak, gauza arruntak ikasteko metodo entretenigarriak) eta testuinguru batekin.

100 Gernika-Lumo – B- Batxi1 - Bai

- a) Klaseak ez dira batere interesgarriak eta oso txapa izaten dira. Honek, ikasle askok euskara zerbait aspergarri eta “ez guay” moduan ikustea dakar.
- b) Nik uste, klase dinamiko eta gazteen interesetara zuzendutakoak izan beharko lirateke. Adibidez, antzerki obrak (interesgarriak, eta ez izaten ditugun gutxien modukoak) ikustera joatea, kontzertuak... Eta ez ematea horrenbeste garrantzi euskara garbia egiteari, nire ustez euskararen erabilera baita arazo nagusia, ez euskara garbia egiten den edo ez.

101 Donostia – G – Batxi1 - Bai

- a) Klaseak teknikoegiak direlako.
- b) Nik debate gehiago egingo nituzte klaseak entretenigarriagoak egiteko eta ikasleok ez aspertzeko. Ikasle askok hizkuntza gorrotatzen dute klaseengatik eta hori ekiditeko klase orduetan gehiago hitz egitea lagunduko lukeela uste dut.

102 Lezo – G – DBH4 - Bai

- a) Erabiltzen den metodologia ez delako oso egokia euskara sustatu edo mantendu nahi badute. Dena oso era formalean irakasten da, eta oso gauza zehatzak: gramatika, irakurketa... Dena memoriaz ikasi, azterketan badakizula erakutsi eta betirako ahaztu.
- b) Klase eramangarriagoak, txostenen bat sartuz, errepassu moduan joko txikiren bat eginez, bertako musika jarriz, zerbait egin behar denean horren inguruko informazioa ematen...

103 Iruñea – N- DBH4 - Bai

- a) Klaseak oso monotonia direlako, hau da, ez dira klase dinamikoak egiten.
- b) Klase dinamikoagoak egin. Erakustea zer gertatuko zen euskara desagertuko bazen edo ergatiboa ikasten ari bazaude, klaseetan jolasen bidez ikastea, adibidez, kahootaren bitartez.

104 Leazkue – N – DBH4 - Bai

- a) Ez dute gogoarekin erakusten, beti gramatika egiten dugu eta ez digute praktikatzen uzten, baita ere esan behar da gramatika garrantzitsua dela euskeraz ongi hitz egiteko, baino praktika gehiago beharko genukeela uste dut, jokuak adibidez.
- b) Lehen esan bezala, ez dute gogorekin egiten, ez digute alaitasunarekin eta emozioarekin irakas-

ten, beti txapa edo gramatika da, horrek ez digu guk parte hartzen uzten, bestalde, praktika gehiagorekin gehiago ikasiko genukeela uste dut, horretarako, jokoak eta halakoak daude, edo gutxienez irakasleek gogoarekin egitea, esfortzua hartzen dutela erakustea eta abar...

105 Iruñea – N – DBH4 - (Ez) —————> Bai

a) Dena oso teorikoa delako.

b) Beste dinamika batzuk, jolasak, elkarrizketak... Baina bestetik gramatika edo teoria ere izan.

106 Aiherra – I – DBH4 - Bai

a) Gauzak ikasten ditugula dena botatzeko gero, baina ez dugula deus atxikitzen kurtsoetatik, ikasten ditugu aditzak taula batean baina ondotik ez dakigu nola erabili, ez dugu asko hitz egiten eta euskal literatura ez dugu aski lantzen nire ustez.

b) Nik nahi nituzke kurtxo dinamikoago batzuk non denak dugun aukera parte hartzeko, gure iritzia emanez, elkarrizketak eginez gai bati buruz... Eta euskal literatura gehiago lantzea.

107 Itsasu – I - DBH4 - Ez

a) Metodologia ez da arrunt desegokia baina behar litaizke izan eztabaida, ahozko lan gehiago (eta beste hizkuntza kurtsoetan ere). Sobera metodologi zorrotz bat bada ikasteko gaur egungo kurtsoetan, aipatzen ditugun gaiei buruz berehala lan zehatzak egin behar dira (adibidez: testuak irakurri, ariketak egin eta abar). Ez ditugu aski egiten elgarrizketa libreak erakasleekin.

b) Euskararen historia aipatu ahoz, pertsonai garrantzitsuak aipatu ahoz, eta eztabaidak egin, adierazpen askatasuna erabiliz. Bakotzak bere iritzia emanez...

108 Leioa – B – Batxi1 - (Ez) —————> Bai

a) Batez ere klasean egindako gehiengo bat teoria delako eta irakasleek ez dutelako garrantzirik ematen praktikari. Gainera beti esaten digute preparatzen gaituztela selektibitateko, baina berez garrantzitsuagoa da pertsona batekin elkarrizketa bat izaten ikastea eta ez aditz guztiak menperatzea eta aste bitan ahaztea.

b) Gustatuko litzaidake euskeraz gai batzuei buruz eztabaidak edo debateak izatea uste dudalako aukera paregabea dela bakoitzak konfiantza eskuratzeko hizkuntzarekin, eta etorkizunean harremanak egiteko erraztasun gehiago izateko.

109 Donostia – G – Batxi1 - Bai

a) Klaseak teknikoegiak direlako.

b) Mintzamenak egiterako orduan adibidez, ikasle guztiok egiten ditugun akats larrienak apuntatu eta hitz egin ostean guztion aurrean komentatuko nituzke. Horrela zuzenean denok egindako akatsak ikasiko genituzke.

110 Astigarraga – G – Batxi1 - Bai

a) Euskara arlo formalera bakartu da eta testuinguru gabe utzi da. Beste edozein hizkuntza bezala irakasten da gramatika, lexiko eta literatura arloak bere kabuz landuz. Horrela, gazte asko aurkitzen gara gaur egungo eduki kulturalerako erreferentzia literario, artistiko eta historikoak ulertu gabe, ezin baititugu lotu klaseetako edukiak errealitatearekin. Ez da posible euskara arlo eskolarrera mugatzea soilik.

b) Euskara klasean sustatzeko ikasleek erreferentzia ingingarriak jasotzea haiek ere txiste eta meme haiek erabili araziko lieke. Euskara eguneroko gauza izan daitekeela erakutsiz. Hezkuntza ere ardura-

tu behar da ikasleok euskara C1 soilik ateratzeko bezala ez ikustea. Eztabaidak eta solasaldiek ere gai berriak ekarri ditzatela.

111 ? - DBH4 - (Ez) —→ Bai

a) Uste dut ez dala euskararen metodologia egoki bat sustatzen euskararen alde. Hau da: adibidez, batzuk euskara bakarrik erabiltzen dute ikastoletan eta gero hortik kanpo gazteleraz hitz egiten dute eta gero entzun behar dituzun komentarioak, adibidez: “ez hitz egin euskaraz logurea ematen didala eta ez dot nahi euskaraz hitz egin”, “hala ere zertarakoa hitz egiten duzu hori bakarrik erabiltzen da ikastoletan”...

b) Euskara gero eta gehiago indartu eta ere bai haien ideologiaz aldatu eta ume txikiekin gero eta konfiantza gehiago eukitea hitz egiten dutenean euskaraz.

112 Pasaia – G – DBH4 - Bai

a) Donostian ikasten duen gazte bezala, ikusten dut gazteen euskararekiko erabilera oso galdua dagoela eta horren arazo larria hizkuntza hau derrigortutako zerbait bezala edo ikasteko soilik balio duela uste dute.

b) Ezinezkoa zait tarte txiki honetan pentsatzen dudan guztia idaztea baina gehienbat esango nuke, haur hezkuntzatik hasita aldatu behar den zerbait dela. Kulturari eta beste hainbat esparruri garrantzia emanez. Baita hizkerari eta euskarazko harremanei, ez soilik aditz edo analisi morfosintaktikoei.

113 Milafranga – I – DBH4 - Bai

a) Euskara formalizatua baita: jadanik dena gogoz ikasi behar da eta azterketan informazioa bota. Ondorioz, «ikasi» duguna ez dugu atxikitzen (adibidez, aditzak, testu bat lantzerakoan eta abar). Horrez gain, euskara batuan ikasi behar da.

b) Horren aldatzeko, euskara batuaren aldetik, ez bakarrik euskara batua jakitea menperatzen, baizik eta ere zure euskalkia.

114 Ibarra – G – DBH4 - Ez

a) Nahikoa gai jorratzen ditugu euskararen inguruan eta horrek hizkuntza sustatzen laguntzen duela iruditzen zait.

b) Ez nuke ezer aldatuko. Asko gustatzen zaizkit nire klaseak, izan ere, gure ikastetxeak elkartrukeak eginez beste ikastetxeetako ikasleekin beste euskalki batzuk ezagutzen laguntzen gaitu eta hori aberasgarria iruditzen zait ikaslearentzat.

115 Fruiz – B – Batxi1 - Bai

a) Behintzat nire euskarazko klaseak zuzenduta daude batez ere azterketetara eta ez euskararen erabilera. Esaterako, teoria asko daukagu aditzen inguruan edota ergatiboaren inguruan baina gero ez daukagu aukerarik praktikan jartzeko ezagutza hori, dena gramatika delako.

b) Nire ustez ez lirakeke egon beharko hainbeste klase gramatikari buruz. Hau da, ez da ikusi behar hizkuntza hau klasean ematen den asignatura bat bezala baizik eta eduki behar dugu aukera hizkuntza hau mintzatzeko, gramatika guztia praktikan jartzeko eta baita ere niri gustatuko litzaidake hizkuntza honi buruzko historia ezagutzeko aukera edukitzea baina ez “txapa” moduan; hau da, ikastea eta gero azterketetarako dena botatzea baizik eta jokuen bitartez edota bideoen bitartez jorratzea.

* ● IRAKURKETA OSAGARRIA

“Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako” txostena

2004an argitaratu zuen Eusko Jaurarlaritzako Kultura Saileko Euskararen Aholku Batzordeak *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako* izeneko txostena. Txostena Kike Amonarrizek, Andoni Egañak eta Joxerra Gartziak idatzi zuten, eta ia 20 urte pasa diren arren, bertan aterako ondorioak artikulu honetan jasotzen den errealitatearekin bat datozela uste du Amonarrizek. Hau da txostena irakurtzeko lotura:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/azter1_1_aholkubatzorde_05_05/eu_8513/adjuntos/euskararen_kalitatea_eu.pdf